

**EUSKAL
MUSIKAREN
BENETAKO
HISTORIA**

EZ DOK HIRU



EZ DOK HIRU

**EUSKAL
MUSIKAREN
BENETAKO
HISTORIA**

EUSKAL MUSIKAREN IMAJINARIO KOLEKTIBOAN MURGILDUKO GAITUEN IKUSKIZUNA

“Ez dok Hiru”-ren proposamen teatral berria duzue hau. Publiko helduari zuzendutakoa, umorezkoa, euskaraz. Patxo Telleriak testuak sortzeko eta Mikel Martinezek, eta Telleriak berak, zuzenean antzezteko duten estilo paregabearekin.

“Ez Dok Hiru” eszenatokietara itzuli da, Euskal Herriko imajinario musikaren errepaso ironiko, absurdu eta dibertigarria eskaintzeko. Oraingo honetan, bikoteak beste hiru musikari-aktorekin partekatuko du taula, hitzari, bere ohiko tresna eszenikoari, zuzeneko musikaren indarra gehiturik.





Zenbat euskal kanta ezagutzen dituzu, zahar edo berri? Kalkulua egin duzu inoiz?

Ziur gaude uste duzuna baino askoz gehiago direla. Ikuskizun honetan berrehun baino gehiago agertzen dira (zatiak, noski!) eta denak ez bada gehienak, ezagun egingo zaizkizu.

Kanta kopuru ederra erabili dugu, baina aipatu gabe utzi ditugu beste hainbeste kanta eta musikari. Horiek ere estimatu egiten ditugu, lan honetan tokirik aurkitu ez badute ere.

“Gure musika ondarea, altxor bat da, gure memoria historikoaren lekuko emozionala.”

“EZ DOK HIRU”, kantutegian oinarritutako ikuskizun teatrala da. Gure modukoa, eroa, deskonzertantea, irrigarria azalez... Baina azal horren poro bakoitzari geure musikarekiko maitasuna dario.





Kanta ezagun batek dioen bezela:

Izarren hotsa egun batean
bilakatu zen kantagai,
soinu hartatik uste gabean
noizpait giñaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera
kantuz ta kantuz gure aukera
sekulan isildu gabe.
Musika eginez goaz aurrera,
konpas horretan denok batera
gogorki loturik gaude...

...edo antzeko zerbait.



NORTZUK GARA?

“TARTEAN teatroa” ibilbide luze eta sendoa duen antzerki konpainia da. Jokin Oregi, Patxo Telleria eta Mikel Martinez dira proiektu honen buruak.

Taldearen ezaugarriarik nabarmenena sorkuntza da: taldeko kideek sortutako testu eta ideiekin eraikitzen dira ikuskizunak. Ez Dok Hiru-ren proposamenaren indarra Euskara, hitza, humore eta antzezpenean datza.

Konpainiak euskal kultura eta antzerkiaren aldeko apostu garbia egiten du, eta ahalegin hori aintzat hartua izan da. Hainbat sari irabazi ditu azken urteotan, hauen artean 2012an Patxo Telleria eta Jokin Oregik lortutako Max saria euskerazko testu onenari “Larria, kutsakorra eta mendebaldekoa” lanarekin; 2013an Patxo Telleriak lortutako Max saria euskerazko testu onenari “Lingua Nabajorum” lanarekin; 2014ean lortutako “Donosti Antzerki saria” ikuskizun berberarekin eta 2015ean lortutako Ercilla saria “Pankreas”-en sorkuntza dramatiko onenari bere bertsio bikoitzean.



FITXA ARTISTIKOA

EGILEA:
PATXO TELLERIA

ZUZENDARIA:
JOKIN OREGI

AKTOREAK:
MIKEL MARTINEZ
PATXO TELLERÍA

MUSIKO- AKTOREAK:
ADRIÁN GARCÍA DE LOS OJOS
MARIA ARRIAGA TELLERIA
IVÁN ALLUE

EDIZIO MUSIKALA:
ADRIÁN GARCÍA DE LOS OJOS

JANTZIAK ETA ESZENOGRAFIA:
AZEGIÑE URIGOITIA

ESKENOGRAFIAREN ERAIKUNTZA:
YON GIJON

ARGI DISEINUA:
DAVID RODRIGUEZ

DISEINU GRAFIKOA:
PARADOX

TEKNIKOAK:
DAVID RODRIGUEZ
OIER LANDA

ARGAZKIAK:
GUILLERMO CASAS
PIO ORTIZ DE PINEDO

ILEORDEAK:
ANITZ

EKOIZLEA:
TARTEAN TEATROA

EKOIZPEN ARDURADUNAK:
ANE PIKAZA EREÑO
PIO ORTIZ DE PINEDO





TARTEAN TEATROA

www.tartean.com

tartean@tartean.com

688 617 712

@TARTEANteatroa

#ED3

